


Noaia!!



Urtebetez luzatu da
Haur Eskolaren hitzarmena



Igande eguerdian, Mapilen,
Oriako Lehen Trainerila Txapelketa



Astakiloen abenturak



8 liburuz osatutako ipuin bilduma

Patxiku, Olegario, Mikel eta Josetxo astakiloen abenturekin gozatuko duzue!



Bernardo Atxagak idatziak
Marrazkiak: Jokin Mitxelena



- 1.- Astakiloak Arabian
- 2.- Irasatlantiko batean
- 3.- Astakiloak Finisterre aldean
- 4.- Zirku batean

- 5.- Manager biboteduna
- 6.- Astakiloak New Yorken
- 7.- Astakiloak Afrikan
- 8.- Afrikako zuhaitz txikia

Urriaren 6tik aurrera, larunbatero BERRIarekin!



+ 4,5 €

Liburu guztiak erosiz gero, astakiloen marrazki bizidunen **DVDa opari!**
6 abentura biltzen ditu. 60 minutuko iraupena du.

Harpidodunentzako eskaintza: %20 merkeago. Eskaria egiteko: 941-10 41 45 edo www.berria.info
Ipar Euskal Herriko irakurleak bilduma lortzeko telefono honelara deitu behar duzue. (09 34)943 30 43 45

Babesleak:



AIKERA 873711, 8171 EUSK3737 **berria**

Albiste argazkitan !!

810 gramoko onddo puska

Udazkena iritsi da eta perretxikoak eta onddoak biltzeko garaia da. Irailaren 26an jaso izan zen aldamaneko argazkian ageri den onddoa. 810 gramoko ale hori Asier Mayanek topatu zuen. Mendian onddo bila ibiltzeko ohitura duela adierazi digu, baina gutxitan izaten dela horrelako bat etxeratzeko aukera. Egunean bertan jaso eta egunean bertan jan omen zuten. “Ederra zegoela jarri”, adierazi digu Asier Mayanek. Non hartu zuen, ordea, ez digu esan nahi izan.

Irudian bere alaba azaltzen da, onddoa eskuetan duela.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

KALEAN DA OIHANA LIZASO **5. OR.**

HAUR ESKOLAREN INGURUKO AKORDIOA **6. OR.**

AZKEN UDALBATZA PLENOKO ERABAKIAK **8. OR.**

TRAINERILA TXAPELKETA AGINAGAN **10. OR.**

INAXIO USARRALDEREKIN SOLASEAN **12. OR.**

AISIA GIDA ARGITARATU DU UDALAK **14. OR.**

ESKUBALOI TALDEAK INDARTSU DATOZ **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

Buztinezko soldaduak

Afganistanen orain dela egun batzuk, eta orain dela hilabete batzuk ere, hainbeste Espainiako ejertzitoaren soldaduak hil dira. Esaten digutenez hor dira soldadu gizajo hauek ejertzito humanitarioa osatzen, bakearen alde lana egiten... eta bere bizitza ematen. Horrela ordaintzen dute mundu onerako egiten duen lana.

Intsumitua naiz, "hiltzen ikasi nahi ez nuelako" soldaduzka ez nuen egin, akaso oker nengoen eta bakea erakitzeke soldadua bihurtu beharko nintzen. Ideia honi bueltak ematen nagoela eta esperimendu bat egitea erabaki dut: Soldadu bat egingo dut, buztinezko soldadu bat.

Buztina hartu eta hankak egiten hasten naiz, separatuak egiten dizkiot, lurrean ondo jarrita, bota beltzekin jantzita. Gerrikoarekin jarraitzen dut, hedean balak banan banaka jartzen dizkiot, lan fina eta ez atsegina. Eskuetan horietako metrailadore bat, behatza gatuan jarrita, tiroka hasteko prest.

Egia esanda desatsegina egiten ari zait soldadu hau irudikatzea eta forma ematea. Tira, zailena falta zait, aurpegia: espresio tentsoa dauka, ahoa itxita, ezpainak gogor elkartuaz, sudurra zabalduta, begi ilunek begirada gogorra dute. Bukatzeko, buruan kaskoa jartzen

diot.

Lehortzeko Buztin Zulo lokaletik ateratzen naiz eta kanpoko zelaian uzten dut, eguzkitan.

Beltzarana egin dut. Buztinezko soldadu honen formaz aparte bere pertsonalitateaz ari naiz pentsatzen orain: etorkina da, Ertamerikatik etorritakoa, pobrezia-tik ihes egin nahian Espainiara iritsi zen eta ejertzitoan sartzen bazen nazionalitate espainola lortuko zuela enteratu zen, bide batez diru pixkat ere irabaziko zuen. Hori dena azkarrago lortzeko hilabete batzuk "zona de conflicto" horietako batean igaro behar zituen. Espainiaren interesak defendatzera gatazka nola sortu zen eta zergatik Espainiak erabaki duen han egotea jakin gabe hara joan da. Nonbait bakea eraikitzeke soldaduak lortzea zaila da.

Ordu bete pasata euria hasi duela konturatu naiz eta buztinezko soldadua kanpoan dagoela gogoratu dut. Korrika atera naiz babesean jartzeko baina berandu iritsi naiz, busti egin da, euriko urarekin desegin da. Belarrean ez dago soldadurik eta buztina lokatza da orain.

Berunezko soldaduak buztinezko soldaduak bihurtuko bagenituen...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: urriak 12. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 8.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

MAHUKA
ETXEBESTE KALKA, 3. 943 361 108
Llehen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Bost urte urrun izan ondoren, etxean da berriz ere Oihana Lizaso

Etxean da berriz Oihana Lizaso usurbildarra, bost urtez preso, herritik urrun igaro ondoren. Pasa den ostiralean, irailaren 28an ailegatu zen Usurbila eta ongi etorri beroa jaso zuen Lizasok. Bera iristerako, Oxtapeko kalearen bi aldetan herritar askok itxaroten zion. Ibilgailutik irten zenean, besarkaden eta txalo zaparraden unea izan zen. Gerora, harrera lekutik manifestaldia abiatu zen Aitzaga pareraino. Bertan, Oihanak orain artean horman esekita egon den bere argazkia kendu zuen txalo artean. Ongi etorri ekitaldia, Txiribogan amaitu zen lunch batekin.

Iluntzeko bederatzietarako minutu dezente falta arren, dagoeneko Oxtape ingurura herritar asko bertaratu zen.



OIHANA LIZASOK HARRERA BEROA JASO ZUEN PASA DEN OSTIRALEAN. SENIDEAK, LAGUNAK ETA HERRITAR ASKO ZAIN ZITUEN OXTAPEN. IRUDIA: JAIKI.ORG

HARRERA HUNKIGARRIA

“Besarkadek eta malkoek ez zuten etenik Oxtapen bildu zirenen eta herrira iritsi berria zen usurbildarraren artean”

Horietako asko hilabete amaierako ostirala izanik, frontoi atzean izan ohi den presoan aldeko elkarretaratzean parte hartzetik joana zen herri sarrerara, Lizasoren ongi etorrira.

Hunkitua

Senitarteoak, lagunak eta herritar asko zain ziren 2002. urteko irailetik bost urtez herritik urrun izan den usurbildarrari harrera egiteko. Dena prest zegoen, Oihana Lizaso ailegatzea baino

ez zen falta. Gaueko bederatzietan zeharkatu zuen herri sarrerako zubia eta geratu zen Lizaso zetorren ibilgailua. Ateak ireki eta autotik irtetean, hasi zen ongi etorri ekitaldia.

Hotz egiten bazuen ere, ezin esan horrelakorik jaso zuen harrera ekitaldiaren inguruan. Ordutik aurrera, emozioa eta txaloak nagusitu ziren, ongi etorri ezin beroago batean. Lizasoren senitarteoak, lagunak... Besarkadek eta malkoek ez zuten etenik Oxtapen bildu zirenen eta herrira iritsi berria zen usurbildarraren artean.

Oso une hunkigarriak bizi izan ziren. Animo oihuak, trikiti piezekin nahastu ziren. Ixiltasuna berriz, herriko dantzari talde batek Oihanari eskaini zien aureskuarekin iritsi zen.

Larunbatean omenduko dute

Eman zioten txapela ederra buruan jantzita eta Usurbilgoa jada herrian zela, manifestaldia abiatu zen Oxtapetik kaxko aldera gorantz. Bordatxo aurreko errotondora eta handik kalean behera Aitzagaraino.

2006ko otsailean itxitako herriko tabernaren parean geratu zen Oxtapetik abiatu zen manifestaldi jendetsua. Horman zegoen argazkia Oihanak berak erretiratu zuen, bidean bezala, txalo eta besarkada artean. Herri sarreran hasi zen harrera ekitaldia, Txiribogan prest zuten lunch batekin amaitu zen. Larunbat honetan, omenaldia egingo zaio Usurbilgo frontoian.

ARITZ GORRITI

Otar-Goxo
Elizkarguak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUSIA 10- atzealdean
943 572 795

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Urtebetez luzatu da udala eta Haur Eskolaren arteko hitzarmena

Epe erdirako konponbidea aurkitu zaio Haur Eskolari. Bertako irakasleek eta langileek osatzen duten Ibanher kooperatibak jarraituko du Haur Eskola kudeatzen. Hori bai, udalak diru ekarpen handiagoa egin beharko du. Gurasoek ere, kuota altuxeagoa ordaindu beharko dute. Beste urtebetez, halaxe jarraituko dute.

2005eko abuztuaren 5era egingo dugu atzera. Egun horretan, Usurbilgo Haur Eskolaren kudeaketa Ibanher kooperatibari esleitu zitzaion (Ibanher kooperatiba eskolako langileek osatzen dute).

2005eko urriaren 11n, Usurbilgo udalaren eta Ibanher kooperatibaren arteko hitzarmena sinatu zen. Kontratuaren iraupenari dagokionez, baldintza pleguek haxe zioren: "kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, hitzarmena izenpetzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratuaren indarraldia urtez urte luzatu ahal izango da, guztira beste bi urte gehiago, orokorrean lau urte bete arte, kontratazio organoak hori erabakiko balu".

Ibanher kooperatibak, bi urteko epealdia amaierara hurbiltzen ari zela kontuan harturik, Haurreskolak Partzuergoan sartzeko eskatu zuen, ordurarte baldintzetan jarraitzeko prest ez zegoela adieraziz.

Honen aurrean, 2007ko maiatzaren 2an egin zen udalbatza plenoan, Haurreskolak Partzuergoan sartzeko eskaera bideratzea erabaki zuen garai hartako udal gobernua, estatutuei eta hitzarmen ereduari onespena emanaz.

Partzuergoa, albo batera

Usurbilgo udalaren eskaera aztertu eta gero, Haurreskolak Partzuergoak honela erantzun zuen: hainbat arazo antzematzen zituela, batetik, Ibanher kooperatibak alokatutako langileen lan baldintzetan; eta bestetik, Haur Eskolan lan egiten zutenen hizkuntza gaitasunean.

Irtenbidea bilatu nahian, Usurbilgo udala Ibanher kooperatibarekin eta gurasoekin biltzen hasi zen. Abuztuaren akordio honetara iritsi ziren hiru aldeak:

- Udalak diru gehiago ordainduko dio Ibanher kooperatibari.
- Gurasoek kuota handiagoa ordainduko dute.

Era honetan, Haurreskolak Partzuergoan sartzeko aukera, oraingoz, alde batera uztea erabaki zen.

%11 igo da gurasoen kuota

Akordio horretara iritsi eta segidan, Usurbilgo udalak eta Ibanher kooperatibak 2005ean sinatutako kontratua beste urtebetez luzatzea eskatu zuen Ibanherrek. Aurtengo abuztuaren 17an izan zen hori. Kooperatibaren eskaerak honela zioen: "2007ko urtarriletik abuztura bitarte burutu diren bileren ondorioz, Usurbilgo Haur Eskola kudeatzen duen Ibanher kooperatibak urtebeteko luzapena eskatzen du". Urriaren 11n amaituko den kontratua urtebetez luzatzea eskatzen zen, beti ere, gurasoek onartutako kuoten %11ren igoera eginenez eta udalak usurbildar haur bakoitzeko egiten duen aportazioa 880 eurotik 1.200 eurora igoz.

Proposamen hau pasa den asteko udalbatza plenoan aztertua izan zen. Udal gobernua, Ibanher kooperatiba eta gurasoen arteko akordioak EAE-ANV, Aralar eta PSE-EEren aldeko botoa jaso zuen.

Datozen hilabeteetan ez bada gaia behar bezala bideratzen, datorren urtean ere antzeko egoeran izango dira alde guztiak. EAE-ANVk zuzentzen duen udal gobernua adierazi duenez, neguan martxan izango da Hezkuntza Mahaia eta organo horretan eztabaidatu eta bideratu beharko dute Kalezarren dagoen Haur Eskolaren etorkizuna.

Ikasturteko egutegia

2007/2008 ikasturteko egutegiaren eta ordutegiaren berri ere eman zen irai-



GURASOEN KUOTA %11 N IGOKO DA IKASTURTE HONETAN.

laren 25eko udalbatza plenoan. Hala nola, lanerako beharrezkoa duten titulazioa eskuratzeko konpromisoa hartu dute horren premia duten langileek.

Partzuergoaren borondatea

O-3 urteko haurrak eskolatzeko EAEEn eraturtako ente publikoa da Haurreskolak Partzuergoa. Partzuergoko kudeatzaileen jarrerak, hain zuzen, Usurbilgo udal agintarien harridura eragin du. Haurreskolak Partzuergoak uztailaren 19n erabaki behar zuen zein herritako eskolak onartzen zituen. Kalezarren dagoen Haur Eskolaren inguruko erabakia suspentsoan uzten zuela jakin zuen Usurbilgo udalak; baina uztailaren 23an jakin zuen, korreo arruntez jasotako gutun baten bidez. Hain epe justuekin ibilita, gutun hori akuserik gabe eta urgentziaz ez bidaltzea deigarria izan zen udal agintarientzat. Gutuna uztailaren 23an jaso eta egunean bertan udal ordezkariak Partzuergora telefonoz deitu zuten eta erantzuna hau izan zen: gaia zeramana oporretara joan zela abuztura arte. "Argi antzematen da Partzuergoan Usurbilgo Haur Eskola bere baitan hartzeko inolako borondaterik ezta erraztasunik emateko asmorik ez zutela", adierazi digu alkateak.

Haur Eskolaren gaiak ikusmina piztu zuen azken udalbatza plenoan

Udalbatzan eztabaidatzekoa zen Haur Eskolaren kontratu luzapenaren haritik, gainerako alderdien artean, bi iritzi mota nagusitu ziren; batetik, erabakia behin betikoa ez izatea positibotzat jotzen zutenak eta bestetik, kontraesanak zeudela edota atzerapausoa zela ziote-nak. Gauzak horrela, planteatutakoa aurrera atera zen EAE-ANV, Aralar eta PSE-EEren aldeko bozekin. EAJ-PNVk eta EAK aurka bozkatu zuten.

EAE-ANV

Ikasturte honi aurre egiteko hartutako erabakitzat definitu dute kontratu luzapena. Bi aldaketa nagusi aipatu zituzten; batetik, gurasoei kuota %11 gehitzea eta Udalaren ekarpena 880 eurotik 1.200 eurotara igotzea. Bestetik, egutegian zenbait aldaketa sartzea. Malgutasuna erakutsi nahi diete auzi honetan inplikaturik dauden aldeei eta gelditzen den urtebete honetan behin betiko konponbidea aurkitu. Horren haritik, udal ordezkari, guraso eta hezitzaileekin udazken edo negu parte honetan, Hezkuntza Mahaia osatzeko asmoa agertu zuten udalbatzan. Haur Eskolaren etorkizunari norabidea emango liokeen bilgunea.

Eusko Alkartasuna

EAtik Josune Urkiak kontraesantzat jotzen zuen kontratuaren luzapena. Egungo kontratua urriaren 11 arte indarren dagoela zioen. Horri erantzunez, kontuhartzaileak kontratu luzapena urriaren 11tik aurrera indarrean jarrita, hurrengo ikasturtearen zati bat hipotekatzen duela erantzun zion. Horregatik, kontratu luzapena iraila hasieran indarrean jartzeak horrelako egoerak saihestu eta duela bi urteko okerrak zuzentzeko balia daitekeela gaineratu zuten.

Aralar

Urtebeteko kontratu luzapena onztat jo zuten Aralarreko ordezkariak.



PLENO ARETORA HAUR ESKOLAKO ORDEZKARI ETA GURASO UGARI HURBILDU ZEN. BATZUK, HITZA ERE HARTU ZUTEN.

riek. Azpimarratu zuten, behin behin erabaki bat delako. Horregatik haiek ematera zihoazen aldeko botoa urtebeterako izango zela adierazi zuten. Bestalde, Partzuergoak aurkitutako irregulartasunak konpontzea eskatu zuten.

PSE-EE

Amaya Goyaranentzat, hartu beharreko erabakiak kudeaketa txar bat konpontzen duela adierazi zuen. Baikortzat jotzen zuen udalbatza horretan planteatzen zena, bere esanetan, etorkizuneko erabakiak ez baititu baldintzatuko. Baina 2008ko ikasturte berria hasi baino hilabete batzuk lehenago arazoak konpondu beharko direla gogorarazi zuen. Berriz, horrelako egoerak ez errepikatzeko.

EAJ-PNV

Aurkakotasuna adierazi zuen EAJtik Iñaki Illarramendik. Bere esanetan, onena Partzuergoan sartzea zela zioen. Horregatik, orain bide horretan atzera egitea ez zuen ontzat jotzen.

Hainbat guraso plenoan

Udalbatza saioan arreta gehien piztu zuen gaia izan zen, bertan baitziren

hainbat guraso eta Haur Eskolako ordezkari ere. Alaba Haur Eskolan izan duen guraso batek, bertako langileek egindako ahaleginen pareko laguntzarik orain artean ez dutela jaso salatu nahi izan zuen. Proiektuaren motoreak langileak izan direla aipatu eta haiek duten baliabide falta seme-alabek ordaintzen dutela adierazi zuen. 0-3 urte arteko heziketak duen garrantzia azpimarratu eta udal talde berrian jarrera aldaketa sumatu duela adierazita, hausnarketarako deia egiten zuen.

Haur Eskolako ordezkariak ere plenora hurbildu ziren

Azken hilabeteetan, Haur Eskolako langileen artean zenbait ardura aldaketa izan direla eta langileren batek eskatutako titulazioa ez zuela zioten EAtik. Horri erantzunez, kasu batzuetan momentuan zituzten beharrei aurre egin ahal izateko funtzio aldaketak egin zituztela adierazi zuten Haur Eskolako langileek. Gainera, langileen titulazioak azken legegintzaldian urtero udalari entregatu zizkiotela ere jakinarazi zuten.

Iartzan aurreikusi zen proiektua bertan behera utzi da

Iartzan eremua pasa den irailaren 25eko plenoan ahotan hartu zuten gaitako bat izan zen. Bi erabaki hartu ziren; batetik, jarrita zegoen erre-kurtsoa atzera botatzea eta, bestetik, Arau Subsidiarioetan eremu horretarako planteatzen zen aldaketa bertan behera uztea.

Kalezarren kokatua dago Iartza izeneko lur eremua eta ezadostasun ugari eragin zituen bertan eraikitzeko asmoa dagoen urbanizazio proiektuak. EAE-ANVk oinarritik gaizki eginda dagoen proiektu gisa definitu zuen. Ondorioz, bertan behera uztea eskatzen zuen. Hala, Iartzako beharrei erantzuten saiatuko direla adierazi zuten, baina ez modu horretan.

Ildo beretik, Aralartik forma akatsak eta aldaketa handiak ikusten zituen hasieran aurkeztutako proiektutik bukaerakorra. Ez zela zuzen bideratu zioten.

Horiez gain, PSE-EEko ordezkariak aurkeztutako alegazioa ez zela kontuan hartu erantsi zuen. Gainera, susmagarritzat jo zuen Lurzoruaren Legea onartu bezperatan gaiari buruz egin zen pleno berezia.



IRAILEKO OHIKO PLENOAN HARTU
ZEN IARTZA EREMUKO ERABAKIA.

Iritzi horiek entzunda, EAtik Iartzako urbanizazioa gauzatzeko aukera galdu zela zioten. Ildo beretik, EAJ-PNVk proiektuarekiko adostasuna agertu zuen.

Txaramuntoazpi

Bestalde, Txaramuntoazpin kokatzen diren etxebizitzetan izendapenekin zegoen huts egitea zuzentzea aho batez onartu zen. EAE-ANVtik etxebizitza horiek herritarren zerbitzura jartzeko asmoa agertu zuten.

2008ko Ordenantza Fiskalak hasieraz onartu dira

Datorren urterako igoera gehienak Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) aintzakotzat hartuta erabaki ziren, bi kasutan izan ezik. Hain zuzen, Haur Eskola zerbitzuaren kasuan, %11ko igoera aplikatuko baita. Zabor bilketa zerbitzuan berriz, %10. Orain arteko zerbitzuak mantendu eta hobetze aldera beharrezkotzat jotzen dira igoera horiek. Gaixorik dauden pinuak kentzeko herri-bideen erabileran tasa ordaintzetik salbu uztea ere erabaki zen.

Hiri hondakinen prebentziorako plana eta dekalogoa onartu da

Udalak bereganatzen dituen konpromiso sorta bat da, Aldunditik alorreko diru-laguntzak jaso ahal izateko. Birziklatu, berreskurabili, baina batez ere prebentzioa bultzatu nahi da hondakinen gaian. Hondakinak murriztu edota ez sortzea bultzatzea da asmoa.

Errauste plantari lotuta, Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Mankomunitateen arteko lankidetzaren hitzarmena eta kontsultazioaren estatutuak inpugnatzea berretsi zuten.

Teleasistentzia arautzeko udal erreglamendua

Zerbitzu horren bidez autonomia eta segurtasuna bermatzeko, erabiltzailea larrialdi zerbitzuekin lotzen dute. Hasierako onespina eman zaio plenoan. Orain, hilabetez araudia jendaurrean erakutsiko da. Alegaziorik ez bada aurkeztzen, denbora tarte hori igarota behin betiko onartuko da.

Udalaren eta Kutzaren arteko hitzarmena

Buruntzaldeko euskara batzordeek finantza erakundeetan euskara sustatzeko asmoz, bost urterako hitzarmena onetsi da. Bezeroekiko hizkuntz eskubideak bermatzeko, Kutzak zenbait konpromezu hartzea hitz ematen du.

Kirol Patronatuko zuzendaritza batzordea

Gehiengoz, lehendakaria Lontxo Zubiria eta batzarkideak, Ainara Uribe, Ibon Beristain eta Arkaitz Rezola izatea erabaki zuen udalbatzak.

Gorostitxo elkarteari lokala utziko dio udalak

Gernika Ibilbidea 13 zenbakian, Agerialde pareko lokalean kokatuko da beraz, Gorostitxo Eztiola Elkartea.

2007ko aurrekontuaren 2. kreditu aldaketa

Partida berriak sortu eta beste batzuetan diru sarrera eranstea. Hori da udalbatzan planteatu zena. Baina ez zen erabateko adostasuna izan. Azken bozketa: ANV eta PSE-EEk alde, EAJ-PNVk eta EAK aurka eta Aralar abstentitua.

Lan eta kargu aldaketak

Karmele Bengoetxeak Anttoni Bengoetxearen lekua hartu du, Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika batzordean. Bestalde, behin betiko onartu dira lan-saio murriztua zuten langileei lan-saio osoa ezartzea.

Ucineko isurketekin amaitzeko lanean dabil udal gobernua

Ekainaren amaieratik hona, Ucineko isurketek zeresan handia eman dute Atxegalden. Ordutik, Usurbilgo udaleko ordezkariak maiz bildu dira Ucineko arduradunekin. Udala jarraipen zuzena egiten ari da eta, are gehiago, ke eta usaien arazoa berehala konpondu behar duela azpimarratu dio Ucin lantegiari. Jaurlaritzaren Ingurumen Departamendua ere ganean da eta dagoeneko hainbat neurketa egin dira. Ucinekoak, bere aldetik, hamaika ahalegin egin omen dituz-

te, baina arazoak hor jarraitzen du.

Txatarraren erretzeak eragiten du arazoa

Aluminioa egiten da Ucinen. Aluminio berria egiteko, aluminio zaharra eskuratzen dute. Txatarra hori erretzen dute labean, oinarritzko materia eskuratu ahal izateko. Eta oinarritzko materia horrekin egiten dute aluminio berria. Gehienetan, perfileriaiko txatarra erretzen da Ucineko labean: aluminiozko leihoak, markoak... Eta horrek eragiten ditu keak eta usaiak.



UCINETIK KEA ISURTZEN,
DUELA HILABETE BATZUTAKO IRUDIAN.

Michelinen, aste honetan egingo da erreferenduma

Lan-hitzarmenaren inguruko Leztabaida udaberritik dator. Duela gutxi, Michelingo zuzendaritzak azken hitzarmen-proposamena egin du. Langileen iritzia bildu asmoz, erreferenduma egingo da aste honetan. Ostegunean eta ostira-lean euren iritzia emateko aukera izango dute Michelingo langileek.

Michelingo zuzendariek egindako eskaintzaren aurka azaldu dira enpresa-komiteko kideak.

LABek igorri digun prentsa-oharrak dioenez, kontra bozkatzea eskatu zaie langileei. LABentzat, enpresak egin duen eskaintza lau urtekoa da eta, sindikatu honen ustez, luze-egia da hitzarmenaren iraupena. Gainera, lanaldiaren handitzea eka-



UDABERRIAN HASI ZIREN LANGILEEN MOBILIZAZIOAK MICHELINEN.

rriko luke baina soldatak ez lirateke maila berean igoko.

Enpresak egin duen eskaintzak ez

badu langileen babesa jasotzen, LABek lanuzteak egitea proposatuko du.

Zuen publizitatea hemen



943 360 321

publizitatea@noaua.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Lehen Trainerila Txapelketan aurrez aurre neurtuko dira Aginaga eta Usurbil

Zein baino zein gogorrako entrenatzen. Hala aritu omen dira Usurbil eta Aginagako traineruak azken asteetan. Kontxako uretan, aginagarrak nagusitu zirenetik mende erdi geroago, usurbildarrak errebantxa hartzekotan dira. Aginagarrak berriz, etxeko uretan bandera eskuratze-ira irtengo dira. Igandean, urriaren 7an, argituko dira zalantza guztiak; Oria ibaiko Lehen Trainerila Txapelketan.

Asteburuan ikusiko dena ez da aspaldi ikusi eta ez da berehalakoan errepikatu-ko. Zeresan handia eman du Aginagan ikusiko denak, aspaldiko partez, Aginaga eta Usurbilgo traineruak aurrez aurre lehia bizian arituko baitira.

OXKAR SANTAMARIA

“Ortzaikako ontzian,
Joxe Luis Korta bera
arraunera omen dator”

Baina etxean ez ezik, elkarren artean ika-mika ugari izan dituzten beste lau traineru topatuko dira Oria ibaian; Orio eta Ortzaika eta Pasai San Pedro Pasai Donibanerekin. Tartean, Ortzaikako ontzian Joxe Luis Korta bera arraunera omen dator.



ENTRENAMENDUETAN JO ETA SU ARI DIRA AGINAGAKOAK.

Binaka neurtuko dituzte indarrak Mapil eta Lastola artean. Hortik lau traineru onenak hautatu eta finalerdiak eta final handia jokatu-ko dira. Irabazlearentzat, “ACTko bandera asko baino politagoa dena”, adierazi du Aginagako Jai Batzordeko kide Oskar Santamariak. Alde batean ikurriña, eta besteak, omenaldirako prestatu zituzten banderolen itxura bera izango du.

Hasi eta bukatu, Mapilen

Leku estrategikoa Mapil izango da. Arraunlariak bertan egingo dituzte uretarako sartu irteerak, bertan hasi eta amaituko da txapelketa, eta aipatutako gune-

an izango da sari banaketa.

Lehia ikusgarria izango da. “Pixka batean, ez da horrelakorik ikusiko Aginagan”, adierazi du Jai Batzordeko kideak.

Hitzordua, igandean, urriak 7, 12:00etan Aginagako Mapil parean. Onenak irabaz dezala.

Trainerila Txapelketa

Eguna: urriak 7 igandea.

Ordua: 12:00etan.

Tokia: Mapilen.


ARITZ GORRITI

Iñaki Iturainen “Erriotik itsasora” liburua larunbatean aurkeztuko da

Oria ibaian ospatuko diren estropadek duela mende erdi Aginagak Kontxako uretan lortu zutena gogoraraziko diote askori. Hain zuzen, bost aldiz lehiarik prezatuenean parte hartu eta bitan etxeratu baitzuten bandera. Urte haietako historia eta testigantzak biltzen dituen liburua aurkeztuko da larunbat honetan, urriaren 6an, 19:30ean Aginagako soziedadean. “Erriotik itsasora: Aginagako arraun-

larien historia” liburua, Iñaki Iturain oriotarrak idatzia. Aginagarren nor-tasun adierazleetako bat izan denaren gorabeherak, garai hartako Aginagako argazki zaharrak, arraun-larien esperientziak edota estropade-tako ika-mikak biltzen ditu liburuak.

Jaietan zehar, eskuragai izango da Aginagako denda eta tabernatan, 10 euroren truke. Jai Batzordeko kideek ere mahai bat jartzeko asmoa dute.



URRIAREN 6AN AURKEZTUKO DA LIBURUA AGINAGAKO SOZIEDADEAN.

San Praixku egunean, Pilota Txapelketako finala

Aginagako Pilota Txapelketaren finala San Praixku egunarekin jokatu da. Ostegun honekin, beraz, arratsaldeko 17:30ean hasiko da pilota partida. Finalaren ondoren, sardin eta sagardo dastaketa hasiko da.

Dena den, goizeko 11:00etan hasiko dira San Praixku eguneko ekitaldiak. Meza Nagusia eta gero, herriko jubilatuei hamai-

ketako paregabea eskainiko zaie Aginaga Sagardotegian.

Asteburuak ere, bestelako kontuak ere ekarriko dizkigu. Haur, gazte nahiz helduentzat ekitaldi ugari prestatu ditu Aginagako Jai Batzordeak. Baina jaiak ez dira igandean amaituko. Datorren asteburuan ere, San Praixkuak ospatzeko aukera gehiago izango baita.



IGANDE ARRATSALDEAN, AIZKOLARIAK IZANGO DIRA AGINAGAN.

Asteburu honetako egitaraua

URRIAK 4 OSTEKUNA, SAN PRAIXKU

11:00etan, Meza Nagusia bi bertsoz alaitua. Ondoren, ohiko hamaiketako Aginagako sagardotegian.

17:30ean, Aginagako V. Pilota txapelketako finalak. Jarraian, Sardin eta sagardo dastaketa. Egunari amaiera emateko; herriko trikitilariak.

URRIAK 5 OSTIRALA, UMEEN EGUNA

10:00etan, haurren jolasei hasiera.

14:00etan bazkaria, bazkalostean, jolasak eta sari banaketa.

17:30ean, Kiki, Koko eta Moko pailazoak. Gero, txokolatada eta buruhandiak.

23:00etan, Tximeletarekin dantzaldia.

URRIAK 6 LARUNBATA

16:00, XXVII. Mus txapelketa. Izen ematea 15:30etatik aurrera.

19:30ean, "Erriotik itsasora" liburuaren aurkezpena, Iñaki Iturainen eskutik. Aginagako soziedadean. Gauerdian, Triki Ta Ke.

URRIAK 7 IGANDEA

9:00etan, Tiro-platoa.

12:00etan, I. Trainerila txapelketa. Partehartzaileak: Aginaga, Ortzaika, Usurbil, San Pedro, San Juan. 17:00etan, Aizkolariak: Olasagasti, Mindegia, Etxebeste, Txapartegi. Aizkolarien lana: Kanaerdikoa nork lehenago moztu; 2m-ko enborra zutik, bi aizkolari beste biren aurka; 4x60 eta 4x70eko enborrak moztea. Bi aizkolari beste biren kontra, txanda librean.

Arantxa Eizagirre, Zegama-Aizkorri maratoian

Arantxa Eizagirre Zaldia zubietarra bikain ibili zen VI Zegama-Aizkorri mendi maratoian. Munduko Kopako azken proba puntuagarria zen Zegamakoa. Hori dela eta, 400 lasterkari izan ziren irteeran bildu zirenak.

Arantxa Eizagirrek 6 ordu, 7 minutu eta 10 segundotan osatu zuen 42 kilometroko lasterketa.



BETERANDEN ARTEAN HIRUGARREN IZAN ZEN ARANTXA EIZAGIRRE.

Inaxio Usarralde

“Gai-jartzaileak ez du sekula ahaztu behar protagonista nagusia bertsolaria dela”

Irailaren 22an hasi zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Lehengo astean, kanporaketa faseko saio bat Sutegin jokatu zen. Larunbat honetan, Ataunek jasoko du kanporaketako beste saio bat. Han izango da Inaxio Usarralde, baina gai-jartzaile lanetan. Aitzakia honekin, bertso txapelketaz, bertsolaritzaz eta Usurbilgo bertsozaletasunaz galde egin diogu.

NOAUA! Larunbatean Ataunen arituko zara gai-jartzaile. Horrelako txapelketa batean, plazak eragiten al du zuen lanean?

Inaxio Usarralde. Neu, Ataunen, aurkezle izango naiz gai-jartzaile baino gehiago. Izan ere, batzuetan gai-jartzailea bera izan ohi da aurkezlea (jaialdietan eta...) baina txapelketan ez. Txapelketako saio batek eta plazako jaialdi batek ez dute ezer ikustekorik, ez horixe! Hasteko, lan egiteko moldea oso desberdina da: txapelketakoa talde-lana da eta plazakoa, berriz, gehiago geratzen da norberaren gain. Ondorioz, talde horrek, lanean ari denean, ez dauka buruan Ataungo saioa bakarrik, baizik eta beste guztiak ere.

FAVORITO UGARI

“Aurten ere, ziur ezuste gozo bat baino gehiago emango digula txapelketak”

